

KANALAK

Sendero Vivo-ren helburua gure balio-proposamenak ekitaldi jasangarriak, pertsonalizatuak eta kulturalki aberatsak modu eraginkor eta koherentean bezeroengana iristea da. Horretarako, komunikazio, banaketa eta salmenta-kanal integratuak erabiltzen ditugu. Bezeroarekin harremanak bost faseetan zainduz: pertzepzioa, ebaluazioa, erosketa, entrega eta salmenta ondorengoa.

KOMUNIKAZIO-KANALAK

Bezeroak ezagutzen gaituen lehen puntua dira. Sendero Vivo-ren identitatea, jasangarritasuna, kultura eta kalitate profesionala, kanal hauen bidez transmititzen da.

- **Webgune profesionala (informazio zentro nagusia):** Ekitaldien adibideak, prezioen orientazioa, gure filosofia jasangarria eta bezeroen testigantzak biltzen dituen plataforma. Webgunea da gure “aurpegi ofiziala” eta pertzepzio fasearen gakoa.
- **Sare sozialak (Instagram, TikTok, Facebook):** Ekitaldien atzeko istorioak, dekorazio naturalen prozesua, kultur esperientziak eta artisau proiektuen irudiak partekatzeko erabiltzen dugu. Sare sozialetan sortzen dugu gure komunitatea eta emozio bisuala, gure markaren izaera bisual eta kulturalarekin bat.
- **Kolaborazioak influencer, artisaua eta turismo-erakundeekin:** Gure balio proposamena publiko zabalago batera zabaltzeko modu eraginkorra da, batez ere turismo kultural eta ekitaldi jasangarriaren segmentuetan.

SALMENTA-KANALAK

Hemen bezeroak harreman zuzena izan dezakete gurekin.

- **Online kontaktua (webgunea+formularioak):** Bezero gehienek bertatik hasten dute elkarrizketa: informazioa eskatu, aurrekontua jaso edo lehen hitzordua zehaztu.
- **Bilerak online edo presentzialak:** Bezeroaren konfiantza eraikitzeko hau funtsezko fasea da. Bertan egiten da ekitaldiaren behar eta xehetasunen ebaluazioa. Salmenta-kanaletarako gure helburua da harreman oso pertsonalizatua eskaintzea, gure zerbitzuak bezeroaren nortasunean oinarrituta baitaude.
- **Turismo bulegoak eta kultura zentroak:** Segmentu turistikoa eta ekitaldi instituzionalak hartzeko kanal fisiko osagarriak dira. Informazio orriak eta lankidetzak akordioak erabiltzen ditugu.

BANAKETA-KANALAK

Sendero Vivo ez da produktu fisiko bat; entrega “esperientzia” da. Horregatik, banaketa kanalak dira gure zerbitzua errealitate bihurtzen duten aliantza eta koordinazio guneak.

- **Tokiko hornitzaileen eta bazkideen sare koordinatua:** Dekorazioa, gastronomia, musika, logistika eta kultura-elementuak tokiko hornitzaileen bidez “banatzen” dira. Konexio organikoa dugu komunitatearekin, eta horrek esperientzia benetakoa bihurtzen du.
- **Ekitaldi guneak eta natur-inguruneak:** Ekitaldiaren eguneko entrega hemen gauzatzen da. Lekuaren kudeatzaileekin harreman estua izatea kanal bat da: gure zerbitzuaren kalitatea espazio fisikoan islatzen da.
- **Garraio jasangarria eta logistika berdea:** Gure helburua da “zerbitzua bezeroari heltzea” modu koherentean: ibilgailu hibridoak, shuttle partekatuak, ekipamendu arduratsua eta hondakin fluxu kontrolatua.

SALMENTA ONDORENGOKO KANALAK

Bezeroaren esperientziak ekitaldia bukatu ondoren ere jarraitzen du.

- **Jasangarritasun txostenaren entrega digitala:** Ekitaldiaren ingurumen-inpaktuaren analisia formatu profesionalean bidaltzen dugu. Hori da gure “post-salmenta produktu nagusia”.
- **Feedback eta balorazio pertsonalizatua:** Bezeroarekin harremanari jarraipena egiten diogu: zer hobetu, zer gustatu zaien eta zer behar duten etorkizunean. Honek bezero leialak sortzen ditu.
- **Sare sozialen bidezko jarraipena eta komunitatea:** Ekitaldiaren argazkiak eta une bereziak partekatzeko aukera ematen dugu. Bezeroak gure komunitatearen parte sentitzen dira eta komunikazio naturala sortzen da.